

Q Sukarra

Zer da eta nola aurea hartu?

Coxiella burnetii bakterioak eragindako gaixotasuna da, eta **pertsonak kutsa ditzake**. Oso erresistentea da eta **denbora luzez irauten du** infektatutako ustiategi-etan.

Etxeko hausnarkariak

“Gizakiok etxeko hausnarkarien bidez batez ere, gaixotzen gara Q sukarrak”

Ardietan eta **ahuntzetan**, infekzioak abortuak eragiten ditu.

Behietan, infekzioak arazoak eragin ditzake ugalketan (antzutasuna eta metritis). Abortuak ez dira ohikoak.

Basafauna *C. burnetii* bakterio-aren gordailu izan daiteke.

Transmisioa

Infektatutako animaliek bakterioa ingurunera askatzen dute abortuak izatean edo erditzean, plazentaren, fetuaren, baginako jariakinen, esnearen, gorozkien eta gernuaren bitartez.

Pertsonak kutsatzeko bide nagusia infektatutako animaliek askatutako bakterioz kutsatutako aerosolak arnastea da. Erditzeke aldia da garairik arriskutsuena.

Gizakietan, Q sukarrak “ondorengo sintomak azaldu ditzake”: sukar akutua eta pneumonia atipikoa, sukarra eta hepatitis, edo sukarra bakarrik. Kasuen % 1-5ean, Q sukar kroniko bilaka daiteke, eta horrek heriotza eragin lezake.



Kontrol- eta prebentzio-neurriak

Zaintza:

- ▶ **Ardien eta ahuntzen abortuen berri ematea eta horien analisiak egitea.**
- ▶ **Ustiategian infekziorik dagoen zaintzea; horretarako, aldian-aldian tankeko esnearen edo odol-serumaren laginak aztertuko dira.**



Zure ustiategian abortu-kasurik egonez gero, itxi ukuiluan **abortua** izan duten animaliak eta kumedun daudenak. Gorde fetuak eta plazentak beraien laborategi analisirako eta deitu berehala zure **albaitariari**, lagin osagarriak har ditzan (baginako jariakinak, serumak); gero lagin horiek laborategira bidaliko ditu, han abortuaren kausa zein izan den aztertzeko.

Abortuak eta plazentak kudeatzea:

- ▶ **Azkar jaso eta poltsetan sartu, eskularruak erabiliz.**
- ▶ **Gorde hilotzen/hondakin biologikoen edukiontzian (izoztu daitezke), hondakinen kudeatzaile batek jaso ditzan, erretzeko.**

Saihestu txakurrek eta katuek plazentekin kontaktua izatea.



Hona hemen infekzioa hedatzea eta mantentzea ahalbidetzen duten zenbait arrisku-faktore:

- **Ardiak gune komunetan izatea, kutsatutako artaldeekin kontaktuan.**
- **Infektatutako artaldeetatik datozen animaliak erostea.**

Q sukarrak kutsatutako ustiategietan:

Infekzioak hainbat urtez iraun dezake ustiategian; izan ere, infektatutako animaliek hainbat erditze-alditan behin eta berriro aska dezakete bakterioa. Gainera, bakterioak luzaroan irauten du giroan.

- ▶ **Biosegurtasun-neurriak sendotzea eta ustiategi-koak ez diren pertsonen bertara sartzea galaraztea.**
- ▶ **Ustiategiko bisita-programak etetea.**
- ▶ **Ukuilutik kanpoko erditzeak (eta abortuak) saihestea.**
- ▶ **Simaurrea ukuilutik ez ateratzea** azken erditzetik gutxienez hilabete igaro arte. Kanpoan, simaurrea plastikoz estaltzea konpost bilakatu bitartean.
- ▶ **Plazentak lehen azaldu bezala kudeatzea.**
- ▶ **Bazkaleku komunaletarako sarbidea mugatzea.**
- ▶ **Instalazioak bakterioa aktibo egotea galarazten duten produktuekin garbitu eta desinfektatzea.**
- ▶ **Animaliei I. faseko txerto inaktibatua jartzea.**
- ▶ **Animalien salerosketa saihestea.** Animaliak erosiz gero, jatorrian txertatu beharko dira, infekzioa berriz aktibatzea saihesteko. Salduz gero, animalia negatibo eta txertatuak izan beharko dute.

Biosegurtasun-neurriak

- ▶ **Ukuilu barruan, bertan erabiltzekoak baino ez diren oinetakoak eta arropa bakarrik erabiltzea.**
- ▶ **Ukuilurako sarbidea kontrolatzea eta ustiategikoak ez diren pertsonen erabilera bakarreko oinetako-babesak erabiltzea.**
- ▶ **Ustiategira sartzen diren ibilgailuak kontrolatzea.**
- ▶ **Instalazioak aldian-aldian garbitzea eta desinfektatzea.**
- ▶ **Akainak eta karraskariak kontrolatzea, bakterio-aren gordailu izan baitaitezke.**



Fiebre Q

¿Qué es y cómo prevenirla?

Enfermedad **transmisible a las personas** causada por la bacteria ***Coxiella burnetii***, muy resistente en el ambiente, que permanece activa **largos periodos de tiempo** en las explotaciones infectadas.

Rumiantes domésticos

Los rumiantes domésticos son la principal fuente de infección para las personas.

En el ganado **ovino** y **caprino** la infección provoca abortos.

En el **ganado vacuno** puede ocasionar fallos reproductivos (infertilidad y metritis). Los abortos son raros.

La fauna silvestre puede ser reservorio de ***C. burnetii***.

Transmisión

Los animales infectados excretan la bacteria al medio ambiente tras los abortos y partos, a través de placetas, fetos, fluidos vaginales, leche, heces y orina.

La principal vía de contagio para las personas es la inhalación de aerosoles contaminados con la bacteria excretada por los animales infectados. La paridera es el periodo de mayor riesgo.

En el ser humano, la fiebre Q puede manifestarse con un cuadro febril agudo con neumonía atípica, forma febril con hepatitis o síndrome febril aislado. En un 1-5% de los casos se puede convertir en fiebre Q crónica, pudiendo tener consecuencias fatales.



Medidas de control y prevención

Vigilancia:

- ▷ Notificación y análisis de abortos en ovino y caprino.
- ▷ Vigilancia de la presencia de la infección en la explotación mediante muestreos periódicos de leche de tanque o sueros sanguíneos.




Si en su explotación hay casos de **aborto**, confíne en el establo los animales que han abortado y los gestantes. Guarde fetos y placentas, para su análisis laboratorial y llame inmediatamente a su **veterinario** para realizar tomas de muestras complementarias (fluidos vaginales, sueros) y envíe todo ello al laboratorio para confirmar la causa del aborto.

Gestión de abortos y placentas:

- ▷ Recogida rápida e introducción en bolsas, utilizando guantes.
- ▷ Guardar en el contenedor de cadáveres/residuos biológicos (se pueden congelar) para que sea recogida por un gestor de residuos para su incineración.

Evitar que los perros y gatos tengan contacto con las placentas.



Algunos factores de riesgo que favorecen la propagación y mantenimiento de la infección son:

- el **pastoreo en zonas comunales** en contacto con rebaños infectados
- la compra de animales procedentes de rebaños infectados

En explotaciones con Fiebre Q

La infección puede permanecer en la explotación durante varios años, ya que los animales infectados pueden excretar la bacteria en sucesivas parideras, y su supervivencia en el ambiente es alta.

- ▷ **Refuerzo de medidas de Bioseguridad** y restricción del acceso a la cuadra a personas ajenas a la explotación.
- ▷ **Suspensión de programas de visitas a la explotación.**
- ▷ **Evitar los partos (y abortos) en el exterior de la cuadra.**
- ▷ **No retirar el estiércol** de la cuadra hasta transcurrido al menos 1 mes del último parto. En el exterior, tapar con plástico durante el compostaje.
- ▷ **Gestión de placentas** como se ha descrito anteriormente.
- ▷ Restricción de acceso a pastos comunales.
- ▷ **Limpieza y desinfección** de las instalaciones con productos que inactiven la bacteria.
- ▷ **Vacunación** con la vacuna inactivada de Fase I.
- ▷ **Evitar la compra-venta de animales.** Si se compran animales deberán ser vacunados en origen para evitar la reactivación de la infección. Si se venden, deberán ser animales negativos y vacunados.

Medidas de bioseguridad

- ▷ Utilización de calzado y ropa de uso exclusivo para el interior de la cuadra.
- ▷ Control de acceso a la cuadra y uso de calzas desechables para personas ajenas a la explotación.
- ▷ Control de acceso de vehículos a la explotación.
- ▷ Limpieza y desinfección periódica de las instalaciones.
- ▷ Control de garrapatas y roedores, que pueden ser reservorios de la bacteria.

